



ARZOZ SANTISTEBAN, Xabier

Zuzenbidean doktorea
Administrazio zuzenbideko irakasle laguna
Euskal Herriko Unibertsitatea. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea
Sarriena auzoa
40940 Leioa

BIBLID [1137-1951 (1998), 3; 41-50]

Nafarroako eta Euskadiko komunitate politikoaren izen ofizialak: euskal izenari buruzko eskumenaz iruzkinak

(The official names of the political communities of Navarre
and the Basque Country: commentaries of the
competence about the Basque names)

Nafarroako eta Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osaturiko komunitate politikoaren euskal izenak "Nafarroako Foru Erkidegoa" eta "Euskal Autonomia Erkidegoa" direla erabaki badu ere, Euskaltzaindiak ezin izan du Euskal Herriko Autonomia Estatutua (EHA) ukitzen ahal. EHAk autonomia erkidegoaren izenaren kontua argi eta garbi xedatzen du: erdaraz "Euskadi" nahiz "País Vasco", euskaraz "Euskadi" nahiz "Euskal Herria". Testu juridikoaren euskal bertsioak ofizialtzat jo behar dira "zuzenbidezko eragin eta balio osoaz". Hala herri-botereak eta herritarrak nola itzultzaileak bertsio horietara lotuta daude. Haatik, euskal bertsioek eduki berbera adierazteko termino berriak erabiltzen ohi dituzte legez legez.

Una decisión de 1996 de la Real Academia de la Lengua Vasca ha establecido que los nombres vascos de las comunidades políticas de Navarra y de la constituida por Álava, Guipúzcoa y Vizcaya serán "Nafarroako Foru Erkidegoa" y "Euskal Autonomia Erkidegoa", respectivamente. Sin embargo, dicha decisión no puede afectar a lo dispuesto en el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, el cual determina que la denominación de la comunidad autónoma será en castellano "Euskadi" y "País Vasco", y en euskara "Euskadi" y "Euskal Herria". Este supuesto revela un aspecto descuidado en la normalización lingüística: el del valor jurídico de los términos utilizados en las versiones vascas de los textos jurídicos.

Une décision de 1996 d'Euskaltzaindia (Royale Académie de la Langue Basque) a établi que les noms basques des communautés politiques de Navarre et de celle formée par Alava, Guipúzcoa, et Biscaye seront "Nafarroako Foru Erkidegoa" et "Euskal Autonomia Erkidegoa", respectivement. Cette décision ne peut cependant pas affecter ce qui a été dit dans le Statut d'Autonomie pour le Pays Basque, qui stipule que la dénomination de la communauté autonome sera en espagnol "Euskadi" et "País Vasco", et en basque "Euskadi" et "Euskal Herria". Ce fait révèle un aspect négligé de la normalisation linguistique: celui de la valeur juridique des termes employés dans les versions en basque des textes juridiques.

1. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osaturiko komunitate politikoaren eta Nafarroako komunitate politikoaren izen ofizialak: 1.1. Autonomia Estatutuari erreserbaturiko gaia. 1.2. Euskadiko eta Nafarroako komunitateen izenak Autonomia Estatutuen arabera. 2. **Erakunde politiko izendatzeko terminoa:** "erkidego"/ "komunitate"/ "elkarte": 2.1. Euskal bertsio juridikoetan agertzen diren zenbait ordain. 2.2. Euskal ordainen, eta, oro har, euskal bertsioen balio juridikoa. 2.3. Euskaltzaindiaren eskumena terminologia arazoetan. 2.4. Hizkuntza ofiziala bat egin eta arautzeko eskumena. 3. **Ondorio gisa.**

Nafarroako eta Euskadiko komunitate politikoaren euskarazko izenei buruz Euskaltzaindiak arestian erabaki bat hartu du. Erabaki horren arabera, *Nafarroako komunitate politikoaren eta Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak osatzen duten komunitate politikoaren euskal izenak hauek dira: "Nafarroako Foru Erkidegoa" eta "Euskal Autonomia Erkidegoa".* Erabakia bera, besterik gabe, Euskal Herriko kanpotarrari deigarri gerta dakioke. Artikulu honek ez du Euskaltzaindiaren erabakiaren egokitasuna eztabaidatu nahi: alde batetik, horretarako adituagoak egon badaudelako, eta bestalde, Euskaltzaindia ezagupide eta hausnarketa handiko erakunde delarik, bere erabakiei legelarien esapidea erabilirik "egokitasun presuntzioa" ezagut dakiekelako euskararen hizkuntza eremuan. Dena dela, erabakiak nahastura eragin dezake Nafarroako eta Euskadiko komunitate politikoaren izeneztapen eskumenari dagokionez. Izan ere, hasieran aipaturiko erabakiaren inguruan, eta nolahi ere erabakiaren egokitasuna zalantzan jar dezaketen ustezko erresistentzia gune batzuei zuzendurik, ondorengo idatzi izan da: "erkidego beregain batean erakunde bat dagoenean hizkuntza arazoetan ofiziala, erkidego horretako *funtzionarioek* gainerako herritarrek ez, jakina erakunde ofizial horrek dioena bete egin behar dute, ados egon nahiz ez, besterik gabe". Nolabait iradokitzen den tesia honakoa da: Euskaltzaindiaren erabakiek, eta bereziki komunitate politikoaren euskal izenei buruzkoek, Nafarroako eta Euskadiko botere publikoak behartu-edo egiten dituzte (hori nazio bat izatetik letorkeen alde batera utziz). Ondorioz, artikulu honetan Nafarroako eta Euskadiko komunitate politikoaren euskal izenei buruzko eskumena ikertu nahi dugu, sor daitekeen nahastura argitzeko asmoz. Hemen, beraz, alderdi juridikoa jorratu

nahi da, eta horregatik zuzenbide positiboa izango dugu abiapuntua.

Kontua behar bezala argitzeko, lehendabizi bi arazo bereiztea komeni da. Alde batetik, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osaturiko eta Nafarroako erakunde politikoaren izen ofizialaren arazoa dago, eta hau zuzenbidearen arabera konpondu behar da. Bestalde, gaztelerazko "Comunidad Autónoma" terminoaren euskarazko ordainaren arazoa dago. Hauxe funtsean terminologiako arazotzat jo daiteke; alabaina, ezin daiteke ahortzi zuzenbidea ere hizkuntza kode berezia denik, eta legediaren euskal bertsioek, hots, euskaraz erabilitako terminoek, balio juridikoa dutenik. Beraz, terminologia arazo batean euskal bertsio juridikoek izan dezaketean eragina ere azaldu nahi genuke ondorengo lerroetan.

1. Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osaturiko komunitate politikoaren eta Nafarroako komunitate politikoaren izen ofizialak

1.1. Autonomia Estatutuari erreserbaturiko gaia

Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean EK) 147.2 artikulua Autonomia Estatutuei gutxieneko edukia ezartzen die: a) nortasun historikoaren arabera ondoen dagokion erkidegoaren izena; b) lurraldea mugatzea; c) beren erakunde autonomoen izena, antolaketa eta egoitza; d) bereganaturiko eginkizunak eta betetzeko behar diren zerbitzuen aldaketa egiteko oinarriak. Artikulu honetatik Estatutu-erreserba bat eratoritzen da, hau da, aipatu gaiak erkidego bakoitzerako dagokion Autonomia Estatutuak arautu behar ditu. Erreserbak bi zentzutan jokatzen du, hots, harreman bertikal eta horizontalean. Alde batetik, ezein Estatuko arauk ezin ditu gai horiek ikutu. Bestalde, erkidego bati dagozkion arauak ezin dituzte gainontzeko erkidegoen ondorengo Autonomia Estatutuek aldatu. Estatutu-erreserbaren ondore horizontal honek badu garrantzi berezia erkidegoen lurraldearen aldaketa arauetara dagokienez. Autonomia Estatutuek horretaz arau ezberdinak sortu dituzte eta. Konstituzio Auzitegiak ebatzi du lehenago onartutako Estatutu batek ez duela ondorengo Estatutuen edukia baldintzatzen, Estatutuen mugak Konstituzioak finkaturikoak

1. I. SARASOLA, *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, 1997, 70 or.

ARZOZ, X. Nafarroako eta Euskadiko komunitate politikoaren izen ofizialak: euskal izenari buruzko eskumenez iruzkinak. Eleria. 3, 1998, 41-50

baitira eta inola ere ez lehenago onartutako Estatutuek hartutako erabakiak. Beraz Estatutuak, lehenago edo geroago onartuak izan arren, soilik Konstituzioari atxikitzen zaizkio².

Garbi dago, beraz, erkidegoaren izeneztapena Estatutu-erreserbaren eremuan sartzen dela. Baina nola ulertu behar da erreserba hori? Esate baterako, zer gertatzen da Estatutuak ez badu EKn 147.2 artikulua aurreikusietariko gai bat arautzen (hots, isiltasuna), edo erakunde autonomoen ondorengo erabaki batera bidaltzen badu? Hau ez da galdera teoriko hutsa. Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 4. artikulua ez du Euskal Herriko erakunde erkideen egoitza finkatzen; egoitzaren finkapena Eusko Legebiltzarraren legez eta erkidegoaren lurraldearen barruan burutuko dela adieraztera mugatzen da. Izan ere, arazo bera (erakunde autonomoen egoitza Estatutuak finkatu ez izana) Konstituzio Auzitegiari iritsi da Gaztela eta Leongo Estatutuaren inguruan. Estatutu honek Euskal Herrirako bezala berezko erakunde autonomoen egoitza finkatzeko jardunbidea aurreikusten du: Gaztela eta Leongo Gorteen haien lehenengo bileran, Tordesillas hirian, bi hereneko gehiengoz erabakiko zuten. Konstituzio Auzitegiak hemen malgutasunez ulertu du 147.2 artikuluko erreserba ez dela erabatekoa. Ez du EK 147.2 c) artikulua hausten, Estatutu batek berezko erakunde autonomoen egoitza ez finkatu arren, erabaki hori hartzeko organoa, noiz eta nongoak, eta beharrezko gehiengoa aurreikusten baditu³. Beraz, EK 147.2 c) artikuluko Estatutu-erreserba erlatiboa da, eta ez die erkidegoetako legeei bidea ixten; Estatuko legeei bai, jakina.

Zalantzarria da 147.2 artikuluko eremu osoan Estatutu-erreserba erlatiboa dela irizten ahal izatea, aipatu epaian Konstituzio Auzitegiak iritzi horri oro har atxikitzen diola badirudi ere⁴. Lehenik, ez letorke ziurtasun juridikoarekin bat

bereganatu nahi diren eskumenak, esate baterako, Estatutuak berak ez finkatzea eta geroago sortu beharreko legeek zehaztutakora bidaltzea. Gainera, horixe "hondar klausulak" eragozten du, zeren eta Estatutuek ez bereganaturiko eskumenak Estatuari baitagozkio (EK 149.3 artikulua)⁵. Bigarrenik, 147. artikuluko lehenengo atalak Estatutua "oinarrizko erakunde arautzat" jotzen badu, bidezkoa da ulertzea bere bigarren atalak Estatutuari ezarritako beharrezko edukitik osagai batzuk behintzat Estatutuan erabat araturik izan behar direnetarikoak direla; hots, erreserba absolututzat hartu beharrezkoak direla. Horietatik zein izango da arrazoi gehiagoz autonomia erkidegoaren izenarena baino⁶? Esan daiteke ziurtasun osoz 147.2 artikulua Estatuari agindutako edukiaz *isiltzea* galarazten diola; beraz, Estatutuak erkidegoaren izenaren kontua arautu behar du, izena bera, edo erreserba erlatiboa dela iritzi eztabaidagarriari eutsiz izeneztapen eskumena eta jardunbidea zehazki aurreikusiz.

Bestalde, 147.2 a) artikulua erkidegoaren izeneztapenari eskakizun bat ezartzen dio: erkidegoaren izenak haren nortasun historikoari ondoen dagokiona izan behar du. Dena dela, eskakizun hau oso muga malgua dela ulertu behar da. "Nortasun historikoa" adigaia oso subjektiboa da, eta testuinguru demokratiko batean erkidegoetako ordezkariak berezko nortasuna adierazi eta interpretatzeko egokitasun handiena ezagutu behar zaie. Neurri handi batean erabakia politikoa izango da: adibide ona "*Pais Valencià*", "*Valencia*", "*Regne de Valencia*" etab. itemen arteko auzia litzateke⁷. Izan ere, 147.2 a) artikulua nortasun historikoari ondoen dagokion izeneztapena agintzen badu ere, Estatutuek ez dute "*Reino de Navarra*", "*Regne de Valencia*", "*Reino de Aragón*", "*Regne de Mallorca*" edo "*Principat de Catalunya*" gisako ohiturazko izenik hartu⁸.

2. Konstituzio Auzitegiaren 99/86 Epaia, 6. oinarri juridikoa.

3. Konstituzio Auzitegiaren 89/84 Epaia, 7. oinarri juridikoa.

4. "(de) la determinación del contenido mínimo de los Estatutos que se hace en el art. 147.2 de la Constitución ... no puede deducirse una reserva estatutaria absoluta ... Ciertamente no existe tal reserva ni siquiera frente a las Leyes del Estado en lo que se refiere a las competencias [art. 147.2 c), ya que éstas pueden resultar también de las Leyes estatales no estatutarias a que se refiere el art. 150 de la Constitución. Tampoco existe tal reserva estatutaria absoluta frente a la Ley de la Comunidad Autónoma en lo que se refiere a la organización de las instituciones autónomas propias, cuyo desarrollo mediante Ley no podría considerarse contrario al art. 147.2 c). Y lo mismo hay que decir de la determinación de la sede de tales instituciones. El precepto contenido en el art. 147.2 c) de la Constitución significa sin duda la absoluta exclusión de la norma estatal no estatutaria, pero no es razón para afirmar que se ha infringido cuando, como ocurre en el caso presente, aun no fijándose la sede por su nombre, se establece qué órgano habrá de determinarla, cuándo y dónde habrá de hacerlo y con qué mayoría, que es perfectamente acorde con una interpretación, que no hay motivos para rechazar, que ve en el art. 147.2 d) [sic una reserva estatutaria sólo relativa en la materia que nos ocupa" (89/84 Epaia, 7. oinarri juridikoa).

5. Honela C. AGUADO RENEDOK, *El Estatuto de Autonomía y su posición en el ordenamiento jurídico*, CEC, Madril, 1996, 250-251 orr., horregatik eskumenen enumerazioa erreserba absolutuan sartuz.

6. Honela sakondu gabe derituz AGUADO RENEDOK, aip. lib., 216 or.; eta isilbidez Konstituzio Auzitegiak (gorago aipatu 89/94 Epaia).

7. Izan ere, aipatu erkidego horretan gatazka politiko bizia gertatu zen izeneztapena zela-eta. Azkenean anbiguetatearen bidezko konpromisuz erkidegoari "*Comunidad Valenciana*" izen berria eman zitzaion (Valentziar erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 5/1982 Lege Organikoaren 1.1 artikulua). Oso interesgarria da Estatutu honen hitzaurrea, izenaren noraezko finkapen politikoari buruz.

8. Ezerk ez omen zukeen horrelakorik galaraziko. Koroak berak ohiturazko titulu horiek erabiltzen jarraitzen du (esate baterako, "Palma de Mallorcako Dukatua" esleitu berri du, baina ez "Mallorcako Dukatua"). Salbuespen bakarra Asturiasko erkidegoaren izen ofiziala den "*Principado de Asturias*" da (baina ez "*Reino de Oviedo*"). Valentziar erkidegoaren Autonomia Estatutu projektuan UCDk bultzatutako "*Reino de Valencia*", ordea, Kongresuaren Plenoak gaitzetsi egin zuen, eta egungo izena asmatu behar izan zen eragozpen hori gainditzeko.

Azaldutakoaren arabera, beraz, Estatutu batek Konstituzioa urratuko luke bi kasutan: sortzen eta erakundetzen duen erkidegoarentzat izenik (edo erreserba erlatibo bat onartzekotan, izeneztapen jardunbiderik) ez balitz aurreikusiko, edo nortasun historikoari bat ere ez dagokion izen arbitrario bat ezarri gero⁹.

1.2. Euskadiko eta Nafarroako komunitateen izenak Autonomia Estatutuen arabera

Euskadiko eta Nafarroako komunitate autonomoen izeneztapenak, beraz, komunitate horien Autonomia Estatutuetan finkatuta egon behar du, azaldu den eran. Izeneztapenaren kontua hizkuntza ofizial bietan ager daitekeenez, lehendabizi gaztelerazko bertsiora joko dugu, eta ondoren euskal bertsioaren arazoak aztertuko ditugu.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak (EHAE) lehengo artikuluan argi eta garbi xedatzen du komunitate autonomo horren (gaztelerazko) izenak *“Euskadi”* eta *“País Vasco”* direla. Lehengo artikuluan arabera, *“(E)l Pueblo Vasco o Euskal-Herria, como expresión de su nacionalidad, y para acceder a su autogobierno, se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de Euskadi o País Vasco, de acuerdo con la Constitución y con el presente Estatuto, que es su norma institucional básica”*. Beraz, komunitate honek bizitza juridiko eta politikorako eta agiri ofizialetarako bi izen ofizial ditu gazteleraz: *“Euskadi”* eta *“País Vasco”*. *“Comunidad Autónoma del País Vasco”* izena, edo laburbilduz *“País Vasco”*, da Estatutuan zehar gehien erabiltzen den aldaera: 2.1, 2.2. 4, 6.5, 8, 10, 11.1, 11.2, 12, 13, 20.2, 20.4 eta 45.1 artikuluetan; honela da ere Estatutua bera izendatzeko hautamena: *“Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco”*. Eusko Legebiltzarraren

legeetan *“(Comunidad Autónoma del) País Vasco”* gehien erabiltzen den esamoldea¹⁰. Lehengo artikuluaen arabera ere zilegi den *“Comunidad Autónoma de Euskadi”*, ordea, ez da Estatutuan *behin ere* erabiltzen; *“Euskadi”* soilik birritan erabiltzen da, eta, antza denez, estiloa dela-eta: 6.1 eta 7.2 artikuluetan. Komunikabideetan eta administrazio jardueran ere¹¹ maiz erabilia den *“Comunidad Autónoma Vasca”* esamoldeak, Estatutuan bertan birritan agertu arren (43.1 artikuluan eta 6. xedapen iragankorrean), ez dauka inongo euskarriik komunitate autonomoaren izeneztapen-era erabakitzen duen aipatu 1. artikuluan. *Ondorioz, zuzenbidearen arabera aldaera hori ezin da inola onetsi*¹².

Euskal izen ofizialaren kontuan, metodologia berari egin behar zaio kasu. Erdarazko testuan gertatzen den bezala, orobat euskal bertsioan Euskal Herriko komunitatearentzat bi izen ofizial ematen dira: *“Euskadi”* eta *“Euskal Herria”*. Eztabaidarik gabe doa hitz hauek gaztelerazko terminoen itzulpen zehatza direla (*“Euskadi”*=*“Euskadi”*, *“País Vasco”*=*“Euskal Herria”*). Estatutuaren euskal bertsioan zehar ere *“Euskal Herria”* da gehienetan agertzen den izena. Beraz, lehenago esan bezala, orobat *“Euskal (Autonomia Komunitatea)”* aldaera gaitzetsi egin behar da.

Izen ofizialen bikoiztasuna deigarria da gainontzeko komunitate autonomoen, edo oro har beste Estatu edota erakunde politikoaren, kasuekin erkatuz gero. Esan behar da izen bikoiztasun horrek ez duela bi hizkuntza ofizial izatearekin zerikusi zuzenik (izen ofizialen aniztasuna justifikatzen ohi duen arrazoia; adibidez *“Suomi/Finland”*, *“België/Belgique/Belgien”*), gazteleraz bi izen (*“Euskadi”*, *“País Vasco”*) eta euskaraz beste bi (*“Euskadi”*, *“Euskal Herria”*) baitira. Nafarroako egoera sinpleagoa da. Nafarroako komunitatearen izena gazteleraz *“Comunidad Foral de Navarra”*¹³ da. Beraz, euskaraz baliokide bakarra legoke, eta, zalantzarik gabe, horretxek *“Nafarroa”* izan behar du.

9. *“Comunidad Valenciana”* hautamenari buruz M. MARTÍNEZ SOSPEDRAK ondokoa gaitzesten du: *“que una denominación de compromiso, adoptada in extremis, sin uso social alguno, e inventada nueve meses antes de la aprobación del Estatuto, cumpla el mandato constitucional” (Comentarios al Estatuto de Autonomía de la Comunidad Autónoma Valenciana, R. Martín Mateo-ren zuzendaritzapean, Ministerio de Administración Territorial, Madril, 1985, 52 or.)*.
10. Salbuespenak dira martxoaren 18ko 4/1981 Legea, *“Euskadi-ren izeneko Senadoreen izendapenaz”*, apirilaren 14ko 8/1983 Legea, *“Euskadi-ren himno ofizialaz”* eta azaroaren 15eko 4/1984 Legea, *“Euskadi-ko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeaz”*; dena dela, izenburuan *“Euskadi”* erabili izan arren, lehenengoan testuan zehar *“País Vasco”* (eta euskal bertsioan, *“Euskal Herria”*) soilik erabiltzen da, eta bigarren legearen hitzaurrean behin eta berritri *“Pueblo Vasco”*-z mintzatzen da.
11. Batzuetan Eusko Legebiltzarraren legeetan ere agertzen da: adibidez, Foru Diputazioek Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Aurrekontuak finantzatzeko egin behar dituzten aportazioak zehazteko metodologia 1989, 1990 eta 1991 ekitaldietarako onartzen duen 9/1988 Legearen Eranskinaren lehenengo artikuluan, *“País Vasco”/“Euskal Herria”* terminoa sarri agertzen bada ere.
12. Zalantzarria da, gainera, izenondo baten bidez izeneztapena egokia den. *“Comunidad Valenciana”* izenaren egokitasunarekin kritiko agertzen da ildo honetatik MARTÍNEZ SOSPEDRA, *Comentarios...*, aip. lib., 52 or.
13. Nafarroaren Foru Erautzaren Birrezarri eta Hobeagotzeari buruzko abuztuaren 10ko 13/1982 Lege Organikoaren 1. 2., 4. artikulua eta 3. xedapen gehigarriaren arabera.

2. Erakunde politikoa izendatzeko terminoa: “erkidego”/ “komunitate”/ “elkarte”

2.1. Euskal bertsio juridikoetan agertzen diren zenbait ordain

Lehenago esan dugu gaztelerazko “*Comunidad (Autónoma)*” terminoaren euskarazko ordainarena terminologiako arazoa dela; orobat aztertu behar da euskal bertsio juridikoek zein ordain ematen duten eta ordain horien balio juridikoa. Konstituzioaren azken xedapenak Konstituzioaren gaztelerazko testu ofiziala “Espainiako beste hizkuntzetan” argitaratzea agindu zuen. Horrexegatik, zenbait “hizkuntzetara” itzularazi zen; zehazkiago euskara, galiziera, katalana, mallorkera eta valentzierara, eta argitaratu ere bai¹⁴. Iragaitzeko begirada besterik eman ez dionak badaki Konstituzioaren euskal bertsioa kaskarra dela garai horretarako ere; izan ere, erabilia izateko oso desegokia da. Dena den, euskal bertsio honek “*Comunidad Autónoma*”-ren baliokide gisa “*Erkidego Autonomo*” ematen du.

Oro har kalitate hobea duen baina oraindik hobe daitekeen Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren euskal bertsioak “*Komunitate Autonomo*” terminoa ematen du erakunde politikoa izendatzeko. Baliokideen asmamena ez da hemen gelditzen. 18 hilabeteko epe laburrean berri bat jaioko da. Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea eta haren ondoren sortutako hainbat legeren euskal bertsioek “*Elkarte Autonomiaduna*” erabiltzen dute. Azken bolada honetan, ondorengo aldaerek arrakasta izan dute. Herri Kontuen Euskal Epaitegiari buruzko otsailaren 5eko 1/88 Legeak “*Autonomi-Elkarte*” erabiltzen du; Foru Diputazioek Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Aurrekontuak finantzatzeko egin behar dituzten aportazioak zehazteko metodologia 1989, 1990 eta 1991 ekitaldietarako onartzen duen ekainaren 29ko 9/1988 Legeak “*Autonomia Elkartea*”, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetarako buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak “*Autonomi Elkarte*” aldaera erabiltzen duen bitartean. Nork ukatuko du termino bategin baten premia?

2.2. Euskal ordainen, eta, oro har, euskal bertsioen balio juridikoa

Euskal bertsioen eta Estatuko beste hizkuntza ofizialetan idatziriko arau-testuen balio

juridikoa ez da oso argia. Zuzenbidearen arabera bi estatus bereizten ahal dira hizkuntza ezberdineko testu juridikoen balioaz: bata jatorrasuna edo benekotasuna, bestea ofizialtasuna esanahi zabalean. Jatorrasuna bezala ez da ulertu behar testu bat asmatu eta idatzi den hizkuntza izatearen inguruabarra (hots, jatorrizkotasuna), *zuzenbideak* testu bat aintzat hartzeko (hots, erabakigarritzat jotzeko) zioa baizik. Jatorrasuna eta jatorrizkotasuna batera joan daitezke (hizkuntza ofizial bakarria dagoenean beti) edo ez. Europar erkidegoak, esate baterako, politika ezberdinei jarraitu zaizkie honen inguruan. Ikatza eta Altzairuaren Europar Elkartearen Eratze Ituna (1951) frantsesez negoziatu eta idatzi zen, eta gero beste Estatu Elkartekideen hizkuntza ofizialetara itzuli izan arren, testu erabakigarria soilik frantsesa da; ordea, Europar Ekonomia Elkartearen Eratze Ituna (1957) ere frantsesez negoziatu eta idatzi zen, baina Estatu Elkartekide guztien hizkuntza ofizialezko bertsioak erabakigarriak dira balio berdinez (esan gabe doa zuzenbidearen fikzio hutsa dela *itzulpen* guztiak benetakotzat jotzea!); eta gauza bera gertatzen da Europar erkidegoetako Erakundeek sorturiko arau eta egintzekin. Jatorrasunaren ezaugarria hau da: hizkuntza ezberdineko bertsioen artean kontraesanik edo zalantzarik agertuz gero, “jatorra” izango da erabakigarria; hau da, ulerkuntza arazoa testu horren bidez konpondu behar da. Bertsio jatorrak anitz badira (Europako Batasunean bezala), guztien artean ulerkuntzaren bidez konponbide bat bilatu beharko da. Ofizialtasunak esanahi zabalean, ordea, hizkuntza bateko bertsioa hainbat helburu publikoetarako erabiltzeko aukera ematen du (agiri publikoetarako, Administrazioarekiko harremanetarako, epaitegietan etab.). Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, ofizialtasuna ondokoa da: “ahal publikoek mintzaira bat haien artean eta baita norbanako pribatuen artean *zuzenbidezko eragin eta balio osoaz* mezuak emateko berezko baliabide normaltzat ezagutu dutenean”¹⁵. Ofizialtasunak berez ez dakar berarekin hizkuntza ofizialeko bertsio guztiak jator edo benetakotzat jotzea. Irlandako Konstituzioak, adibidez, bi hizkuntza ofizialetako *Konstituzioa* edo *lege* bertsioen arteko kontraesana izanez gero, lehentasuna “nazio hizkuntzari” hots, gaelikoari ematen dio¹⁶.

Badirudi Konstituzioaren azken xedapenak bakarrik gaztelerazkoa jotzen duela testu ofizialtzat. Xedapen horrek ondorengo agintzen du: “Konstituzio hau, testu ofiziala Estatuko

14. Ik. testuak *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*-en, Publicaciones de las Cortes Generales, 2. arg., Madril, 1989, IV liburukia, 5211 or. eta hurr.

15. “cuando una lengua es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, *con plena validez y efectos jurídicos*” (Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 Epaia, 2. oinarri juridikoa).

16. Irlandako Konstituzioko 25. artikulua § 4.6 eta § 5.4 paragrafoak (8. artikulua erekin batera irakurriak).

boletin ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean. Espainiako beste hizkuntzetan ere argitaratuko da". Beraz, antza denez, Konstituzioaren euskal itzulpenak eta gainontzeko itzulpenek ez lukete inolako balio juridikorik izango. Dena dela, baliteke "ofizialtasun" adierazpen horrek gaztelerazko testuari *jatortasunaren* estatusa esleitu izatea. Izan ere, Konstituzioaren 3.2 artikulua Estatuko beste hizkuntzei dagozkien erkidegoetan haien Autonomia Estatutuen arabera *ofizialtasunaren* estatusa ezagutzen die; eta bere azken xedapenak Konstituzioa hizkuntza horietara itzularazi eta argitaratzea agintzen du. Jakina denez, erkidego batzuek agindu horren arabera berezko hizkuntzaren ofizialtasun estatusa zehaztu dute¹⁷. Orduan bidezkoa dirudi ulertzea, "beste" hizkuntza horien ofizialtasun lurraldez mugatuaren barne, Espainiako Boletin Ofizialean argitaratutako Konstituzioaren itzulpen ofiziala ondore guztiekin erabiltzeak egon behar duela; hau da, Euskal Herriko Autonomia erkidegoan zein Nafarroako Foru Erkidegoan (hemen "Vascuence"-ri buruzko Legeko lurralde sailkapenaren mugen arabera) Konstituzioaren euskal itzulpenak ondore guztiekin erabilkorra izan behar duela.

Autonomia Estatutua eta erkidegoko ordenamenduaren arauak erkidegoko hizkuntza ofizialetan argitaratzen dira. Euskal Herriko kasurako, Euskararen Erabilpena Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8. artikulua autonomia erkidegoan dauden herri-botereen arauak eta erabakiak bi hizkuntzetan idatzita egon beharra ezartzen du, "zabalkunde ofiziala egiteko"¹⁸. Zabalkunde ofiziala dagiten testuak ofizialtzat jo behar dira, eta Konstituzio Auzitegiak adierazi duen hizkuntza ofizialtasunaren edukia gauzatzeko (mintzaira bat herri-botereen aurrean

eta hiritarren artean komunikabide normala izatea, zuzenbidezko eragin eta balio osoaz) herri-botereek nahiz herritarrek nahitaez lotu behar dute zabalkunde ofiziala dagiten testuetara.

Inon ez da esaten hizkuntza bien ofizialtasunaren arabera eta zabalkunde ofiziala egiteko Legebiltzarrak hizkuntza ofizialak adina testu onartu behar dituenik, hots, testu biak (gazteleraz eta beste hizkuntza ofizialaz) legegintza jardunbideari atxiki behar zaizkionik¹⁹. Baina hori ere ez da inon galarazten²⁰. Praktikan, ordea, Legebiltzarrak testu bakarra onartzen du. Hortaz, bietako bat ondorengo *itzulpena* izaten da. Euskal Herriko eta Nafarroako erkidegoen kasuan, jatorrizko testua eztabaida eta aldaketan bidez sortzen dena gazteleraz izaten da, eta euskal testua ondorengo itzulpena; Catalunyan, ordea, katalanez idazten eta eztabaidatzen dira lege proiektuak. Hala ere, hizkuntza ofizialeko testu guztiak, herriaren ordezkariak onartutakoak *nahiz itzultzaile batzuek burututakoak*, ofizialtzat jo behar dira²¹. Nafarroako eta Euskal Herriko legeen euskal bertsioek lege-indarra izango dute²². Lege-indarra ez da soilik testuarena, zuzenbidezko hitz teknikoetara ere hedatzen da. Hau da zuzenbide hizkera eta beste erabilera sektorialen arteko bereizkuntza: legezko terminoek lege-indarra dute, eta legelari guztiek legediak erabiltzen dituen terminoei atxiki behar dizkiete beren harreman eta egintza juridikoak. Bereziki Administrazioa atxiki behar zaio legediari (EK 103.1 art.).

Inon ez da argitzen kontraesanik edo iluntasunik agertzekotan zein testu hartu behar den aintzakotzat; hots, *jatortasunaren* kontua ez da inon aurreikusi. Arau ezean ulerkuntza aukera bi daude: alde batetik, jatorrizko testuari

17. EK 3.2 artikulua oro har Estatuko "beste hizkuntzen" ofizialtasuna aintzatetsi egiten du; beraz, beste hizkuntzen ofizialtasuna *ex constitutione* da, Konstituzioaren aginduz, eta Autonomia Estatutuek ezin dute ezabatu. Nahitaezkoa da eta ez da hizkuntza batzuetara mugatzen (Aragoiko ekialdeko zerrendan, ordea, katalanak ez dauka inolako ofizialtasunik). Badirudi Konstituzio Auzitegiak tesi horri jarraitzen diola 82/86 Epaiaren 5. oinarri juridikoan. Hala eta guztiz ere, idazle batzuen iritziz, ofizialtasunari atxiki behar badiote ere, Autonomia Estatutuek ofizialtasuna lurraldez nahiz eginkizun eremuz moldatzen ahal dute: ik. A. MILIAN I MASSANA, "La ordenación estatutaria de las lenguas españolas distintas del castellano", *RVAP*, 6. alea, 1983, 239-241 orr.; G. MONREAL ZIA, "La oficialidad del euskara en Navarra", E. COBREROS (bateragilea), Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak, HAEE/IVAP, Oñati, 1990, 128 or.; I. AGIRREAZKUENAGA, "Hizkuntzen ofizialtasunaz", *Jakin*, 65. alea, 1991, 15 or. eta hurr. Dena dela, azken idazle honek ofizialtasunaren lurralde-moldaketa bakarrik oniritzen du, hizkuntza "bai orain eta bai historian zehar, beti lurralde-zati batera murrizturik egon bada", zein Nafarroaren kasuan ukatzen baituen.
18. "a efectos de publicidad oficial".
19. Eusko Legebiltzarraren Araudiak arazoa saihesten du, bere *argitalpenak* bi hizkuntzetan egingo direla xedatzen baitu (1. artikulua); hala, barne nola kanpoan eragina duten argitalpenak ulertu behar dira.
20. Irlandako Konstituzioak, esate baterako, lege proiektu bat bi hizkuntza ofizialetan onetsi eta sendetsi izatea espresuki onartzen du (25.4.3 art.). Ele anitzeko idazketa teknikei buruz ik. A. URRUTIA eta A. LOBERA (arg.), *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1995, 208 or.
21. Bistan da itzultzaileen "legegintzako ahalmena". Beraz, F.J. EZQUIOGA GANUZASen ustez, itzulpenen gainean Legebiltzarraren kontrol eraren bat beharrezkoa litzateke; ik. "Algunas cuestiones sobre multilingüismo e interpretación jurídica", E. COBREROS (bateragilea), Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak, HAEE-IVAP, Oñati, 1990, 365-366 orr. Egile honek arazoa itzulpenen *egiatasunaren* ikuspegitik aztertzen du, lan honetan itzulpenen *termino* aukera dugu aztergai; hau da, itzultzaileek haien itzulpenetan erabilitako terminoen, termino sortuberri askoren balioak eta ondoreak.
22. Ik. A. URRUTIA, "La lengua vasca y el proyecto de "Fuero Civil" de Bizkaia y Araba", Euskal erakunde zibilei buruzko nazioarteko ihardunaldiak, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1991, 457 or. Bestalde, ezin daiteke ukatu eskumen banaketak hizkuntza ofiziala arautzean daukan eragina, aipatu egileak azpimarratu duenez, zeren eta erkidegoak legegintza eskumenik ez duen gaietan ez baita lege garrantzitsuen bertsio ofizialik izango. Arazo hau nolabait erremediatzen ahal izango du apirilaren 14ko 481/1997 Errege Dekretuak, baldin eta benetan aplikatzen bada.

lehentasuna ematea, bestea itzulpen bat besterik ez denez, ezin duela zalantzak argitzeko erabakigarria izan ulerturik; hau da, kontzeptugintzaren hizkuntzari emango litzaioke lehentasuna; bestalde, hizkuntza ofizialetako bertsio guztiak jatorrat jotzea²³. Arau gabez, agian bigarren aukera hobetsi beharko da ofizialtasunaren ezagutzan oinarriturik, hizkuntza batzuen ofizialtasunak ere benetakotasuna barne hartzen duelakoan.

Azaldu arazoari begira, katalanaren normalkuntzari buruzko legeak arau zehatza aurreikusi zuen. Ulerkuntza zalantzarriaren kasurako, jatorrat katalanezko testua jo beharra xedatu zuen. Konstituzio Auzitegiak xedapen honen konstituziotasun eza adierazi zuen. Auzitegiaren iritziz, xedapenak alde batetik hiritarren ziurtasun juridikoa (EK 9.3 artikulua) eta epaitegi eta auzitegien babes eraginkorra izateko eskubidea (EK 24.1 artikulua) hausten zituen; bestalde, Estatuari dagokio arau juridikoen aplikazio erregelak, ulerkuntzari buruzkoak barne, ematea (EK 149.1.18 artikulua), eta Estatuak testu ofizialen arteko ulerkuntza arazo bereziak arautu ez baditu ere, erkidego batek ezin du hutsune hori bete. Konstituziotasun ezaren adierazpenaren oinarriak baino, hemen interesgarriagoa da Auzitegi horrek testu ofizial anitzen arteko harremanari deritzona. Auzitegiak hizkuntza ofizial bietan egindako testu guztiak jotzen ditu jatorrat²⁴. Ez bataz ez besteak ez dauka lehentasunik²⁵. Testu batean adigai ilunen bat agertzekotan, Kode Zibileko 3.1 artikuluko ulerkuntza erregelak aplikatu beharko dira. Auzitegiak azpimarratzen du erregela horien barne "legegintza-aurrekariena" irizpide bat baino ez dela. Hala ere, ezin daiteke ukatu irizpide horrek jatorrizko bertsioaren alde izan dezakeen garrantzia.

Dena dela, jatorratunaren kontua zehaztea interesgarria da testu ofizialen arteko esanahi kontraesanek edo iluntasunek agertzen ahal duten heinean. Artikulu honen helburuetarako kontua bazterrean gera daiteke, zeren eta hemen interesatzen zaiguna ez da esanahi maila, baizik eta hitzen maila, eta *terminoen* artean ez dago kontraesan edo iluntasunik (adibidez "Comunidad Autónoma"/"Komunitate Autonomo"). Hortaz, eutsi diezaiozun lehengo ondorioari; boletin ofizialetan argitaratutako euskal testu juridikoen ordainen lege-indarrari alegia.

2.3. Euskaltzaindiaren eskumena terminologia arazoetan

Euskaltzaindia, orduko euskal erakunde politikoen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aldundien eraginez 1918an sortutako erakunde berezitua da. Espainiako Ministro Kontseiluak 1976an dekretuz ezagutu zuen, eta beste akademia ofizialek ere duten "Real" titulua eramateko ohorea eman zion²⁶. Lau aldundien ohitura eta Estatuak ezagutzaren ildotik, aurreautonomia aldiko Eusko Kontseilu Nagusiak euskara landu, zehaztu eta batzeko arazoetarako organo ofizialtzat jo zuen 1978an²⁷. Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak ere ezagutzen du Euskaltzaindia. EHAE 6.4 artikuluen arabera, Euskaltzaindia euskarari dagozkionetan aholku erakunde ofiziala izango da, bai, baina ez *bakarra*. Euskarari buruzko erakunde aholku-emaile gisa, Euskaltzaindiaren eskusibotasuna tamalgarriro saihestu zen herri honetako indarren sakabanatze usuaren ildotik²⁸. Bizkitartean, Euskaltzaindiaren alboan ez da hizkuntza arazoetan inolako erakunde lehiakiderik agertu; are gehiago, badirudi bere *auctoritas* sendotu egin

23. Honela, isilbidez A. URRUTIA, aip. Iana; eta EZQUIOGA GANUZAS, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 296/1988 Dekretuan oinarrituta, zeinek xedatzen baituen EHko Agintaritzaren Aldizkaria euskaraz eta gaztelaraz argitaratuko dela, eta hizkuntza bietan ofizialtasun eta *benekotasun* estatusa izango duela (3. art.). Dena dela, zalantzarria da dekretua benekotasuna arautzeko oinarri egokia daitekeen.
24. "Uno de esos elementos sería evidentemente el texto catalán, sin que ello supusiera primacía o preferencia alguna de este texto sobre el castellano: que, de presentarse en el texto castellano, *igualmente auténtico*, un pasaje dudoso, el texto catalán esté llamado a desempeñar un papel relevante a la hora de interpretarlo, como también habría de suceder en la hipótesis inversa, será consecuencia de la aplicación de las reglas de interpretación, tal y como vienen reguladas, en virtud de la competencia estatal sobre las mismas, en el artículo 3.1 del Código Civil. No siendo esto lo que dice el precepto impugnado, que otorga el carácter de texto auténtico *sólo* al catalán, debe ser declarado inconstitucional" (83/86 Epaia, 3. oinarria. Kurtsiba nirea da).
25. Epaia arabera, argi dago erkidegoak ezin diola ezein hizkuntzari lehentasuna eman; Estatuak, ordea, aplikazio eta ulerkuntza erregelak sortzeko eskumenaren barne, honetaz xedapenak eman omen ditzake. Dena dela, hiritar guztien bakarrik gaztelera jakiteko betebeharra eta erkidegoetako legeen erkidegoz kanpoko eragina direla-eta epaiak berak adierazten duena, badirudi Estatuak soilik gaztelerazko testuari eman diezaiokeela lehentasuna.
26. 1976ko otsailaren 26ko 573/76 Dekretua, martxoaren 25ko BOEn argitaratua
27. 1978ko martxoaren 13ko Dekretua, maiatzaren 15ko EKN Aldizkari Ofizialean argitaratua.
28. ARZALLUZ ANTIA diputatuaren eskusibotasun eza defendatzeko zioa, "el supuesto de que en el futuro pueda haber instituciones diferentes de alto valor de conocimiento y de regulación de la lengua" izan zen. Eskusibotasun eza COBREROSek kritikatzan du (91 or.). A. CELAYA IBARRAK, ordea, justifikatu egiten du: eskusibotasuna litzateke "quizá comprometedor para el futuro. Es preciso tener en cuenta que en torno a la lengua se pueden presentar un sinnúmero de cuestiones educativas o pedagógicas, sociales, etc. en las que no puede bastar la simple función técnico-gramatical de la Real Academia" (*Derecho Foral y Autonomo Vasco*, II liburukia, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1987, 146 or.). Ik. Estatutuaren 6. artikuluen gorabeherez V. eta C. TAMAYO SALABERRIA, *Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1981, 870 or.; gai honetaz diputatuaren arteko eztabaidaketa oso-osorik dakar E. COBREROS MENDAZONAK, *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*, HAAE/IVAP, Oñati, 1989, 61-63 orr.

dela. Beraz, Autonomia Estatutuak *de iure* ukatu zion eskusibotasuna bereganatu edo mantendu egin du Euskaltzaindiak nolabait *de facto*. Izan ere, eskusibotasun ezaren aldeko erabakiak ondore praktiko gutxi ekar zezakeen, zeren eta beste erakunderen bati aholkua eskaturik ere, Estatutuaren arabera orobat Euskaltzaindiari beti eskatu behar izango bailitzaike. Bestalde, beste erakunde horiei ofizialtasuna ezagutu nahi izanez gero, Estatutuaren aldaketa beharrezkoa izango litzateke.

Beste kontuetan hain kritikagarria den Euskarari buruzko Nafarroako Legeak ez du hemen huts egiten, eta bere 3.3 artikulua Euskaltzaindia aholku erakunde ofizialtzat, hots bakartzat, jotzen du hizkuntza araei dagozkienean. Dena dela, lege arrunta izateagatik, Euskaltzaindiaren eginkizunaren eskusibotasuna ez dago Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren arabera bezainbat bermatuta.

Beraz, Nafarroako nahiz Euskadiko legedien arabera, Euskaltzaindia *aholku erakundea* da. Bi legediak oso argiak dira. Euskaltzaindia ez da inola ere erakunde erabakitzailea. Aholkua emango dio erabaki behar duenari. Esate baterako, Euskadiko legediak toki-izeni dagozkien ondorengoa xedatzen du: "lurralde, udal, herri, geografia-gorabehera, hiribide eta, oro har, toki-izen guztien izen ofizialak Jaurlaritzak, Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek edo Toki-Erakundeek finkatuko dituzte, bakoitzak berari dagokion aginte-eremuan barruan"; xedapen berak gehitzen du "beti ere, jatorrizko izen euskaldun, erromantzezko edo gaztelaniazkoari, hizkuntza bakoitzari dagokion idazkeraz men eginez"²⁹. Azken baldintzari egokitzerakoan gerta daiteke Euskaltzaindiari aholkua eskatzeko abagunea, baina garbi dago erabakitzen dutenak herriak izendaturiko beste organo horiek direla.

Euskaltzaindiaren aholku eginkizuna ez du inongo arauk garatzen. Lehen aipatu oinarritzko xedapenek, euskarari dagozkion arazoetan aholkurik *nahi* izatekotan *nori* eskatu beharko zaion xedatzen dute. Hala ere, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan Euskararen Erabilpena Arautzeko Legeak Euskaltzaindiari aholkua eskatu *behar* zaion kasu bat aurreikusten du: Toki Erakundeak eta Eusko Jaurlaritzaren artean toki-izen ofizialei buruzko auziren bat gertatuz gero, Eusko Jaurlaritzak ebartziko du, aurrez Euskaltzaindiari bere iritzia eskatu ondoren (10.3 art.). Kasu honetatik landa, ez dago aholkurik eskatu beharrik. Aholkua *nork* eska dezakeen

kontuaz, bestela arautu ezik, ulertzen ahal da edozein organok berezko eskumen bat egikartzeko beharrezkoa duenean Euskaltzaindiari aholkua eskatzen ahal izango duela. Euskarari buruzko lege nafarrak aholkua eskatzeko gai direnen subjektuak ere zabalki definitzen ditu. Bere 3.3 artikulua arabera, "*herri botereek* beharrezko uste izan adina irizpen eta txostenak" eskatzen ahal izango dituzte. Legitimazio zabal honek ez du aholku eskaera itzelaren beldurrik sortu behar, toponimia kontuetan izan ezik benetan kontuan hartu beharreko organo edo erakunde kopurua txikia baita. Izan ere, Euskadiko erakunde multzotik, Euskaltzaindiarengana hurbiltzeko joera berezia izango duen organoa Eusko Jaurlaritza da, hurrengo atalzatian azalduko denez.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuko 6.4 artikulua arabera, "*euskarari dagozkionetan*" eska dakioke Euskaltzaindiari aholkua. Esapide hori oso orokorra da, euskarari dagozkion kontuak askotarikoak izan daitezke-eta: linguistika, terminologia, leku-izenak, estandarra, soziolinguistika e.a. Euskarari buruzko foru legea zehatzagoa da: alde batetik aldarrikatzen du herri botereek *hizkuntza araua* (hots, estandarra) begiratu duela bere egintza guztietan (3.2 art.); bestalde xedatzen du *hizkuntza arauak* zehazteko Euskaltzaindia aholku erakunde ofiziala izango dela, eta herri botereek hizkuntza araua begiratu behar izatea betetzeko Euskaltzaindiari beharrezko uste izan adina txosten eta irizpen eskatzen ahal izango dizkiotela (3.3 art.). Beraz, foru legearen arabera Euskaltzaindiaren aholku eginkizuna zehatz edo murriztagoa (estandarra zehatzea) bada ere, legeak herri botereak indartsuago lotzen ditu eginkizun horrekin, hizkuntza araua gordetzera behartzen ditu-eta.

2.4. Hizkuntza ofiziala bat egin eta arautzeko eskumena

Azaldukoari jarraiki, nafar legediaren arabera garbi dago zein den euskararen estandarra zehazteko erakundea. Euskadiko legediak, ordea, xehetasun gutxiago dakar. Azaldu denez, Gernikako Estatutuak ez du Euskaltzaindiaren aholku eginkizunaren objektua ongi mugatzen. Zehaztasun eza horrek arazoak sor ditzake Euskararen Erabilpena Arautzeko Legearen xedapen batekin elkarrean ezarriz gero. Lege horren 30. artikulua arabera, "Jaurlaritza, Euskal Herriko Autonomia-Elkartearen lur eremu osorako idatzizko hizkuntza ofizial denez, *euskararen batasun eta arautasunaz arduratuko*

29. Euskararen erabilpena arautzeaz Euskal Herriko legearen 10. artikulua.

da, Euskal Herriaren kultura ondarearen funtsezko zati direnez euskalkiei bizi diren tokietan zor zaien begirunearen kaltetan gabe” (*sic*). Xedapen honek zalantzak sor ditzake Jaurlaritzaren eginkizunaz, bi ulerkuntza aukera eskaintzen baititu³⁰: Jaurlaritzak euskararen batasuna eta arauzkotasuna eragin eta bultzatu beharko lituzke, eta hor, hizkuntza ofizial idatzari dagokionean, euskalki aniztasunez gaindi, estandarrekiko konpromezua finkatuko litzateke beste inon espresuki adierazten ez dena; edo eta Jaurlaritzak berak hizkuntza (idatzi) estandarra zehazten ahal izango luke. Azken aukera ez dut uste inork seriotan hartuko duenik. Izan ere, hizkuntzaren batasuna *eta* arautzea (normalkuntza ere deritzona), soziolinguistika kontzeptuak erabiliz *corpus* eta *status* plangintzen parean doazenak, eremu ezberdinak eta tresna eta politika ezberdinekin landu beharrekotzat jotzen ohi dira. Euskararen normalkuntza aztertzean bereizkuntza hori ere aintzakotzat hartzen du GARMENDIA LASA: “Corpus plangintzaren antolaketari dagokionez, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaren politikan eta jardunean Euskaltzaindiak ditu *leku eta eginkizun bereziak*”; “nahiz Administrazioa bera egile izan ez, eragile bai baita gaur eta hemen”³¹. Beraz, badago ardurara edo “eskumenen” oinarritzako banaketa. Euskaltzaindiari *corpus* plangintzaren gidaritzaren nagusia dagokio, Administrazioa izango delarik (Jaurlaritzaren legediaren arabera) plangintza horren eragile eta eusle; bestalde, Administrazioari *status* plangintzaren gidaritzaren nagusia dagokio. Hala ere, banaketa ez da garbia: corpus plangintzari dagokionez “Administrazioak berak ere badu egitekorik bere ardurapeko eremuetan”³². Administrazio eta lege hizkerarekiko Administrazioak badu harreman estua, bere jardura egintza idatzien lege, araudi, administrazio egintzen bidez adierazten denez, terminoen beharra du eta terminoak sortu, asmatu eta moldatu behar ditu egunero (hor daude boletinen ofizial guztiak). Eta batasunaren kontua ez balego ere, administrazio arau eta egintzetan termino ugartasuna esanahi edota adigai bana saihestea *segurtasun juridikoak* berdin eskatuko luke. Eta gogora bedi testuek ez ezik terminoek ere argitaratu izan direnetik dutela *lege-indarra* (kirol, komunikabide, lan, teknika eta hainbeste gizarte arloko erabilera sektorialekin gertatzen ez dena). Garbi dago ez Euskaltzaindiak ez eta beste inork ezin duela azalduko eginkizuna bete esate baterako, testu guztiak ikuskatu edo milaka terminoren zerrendak egin; eginkizun hau

Administrazioak berak burutu behar du ahalik eta ondoen. Eta Euskararen Erabilpena Arautzeko Legearen 30. artikuluko “en su condición de lengua escrita oficial común en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco”³³ esamoldea administrazio hizkerara mugatuta ulertzen badugu, ezinbestekotzat jo beharko da corpus berezia den administrazio hizkerara *bat* egiteko ardurara Jaurlaritzaren pean izatea estandarren aurka ez doan heinean, jakina.

Ildo horretatik, Jaurlaritzak ekintza ezberdinak burutu behar izango ditu, baina hemen bat besterik ez nuke azpimarratu nahi. Egun eginkizun saihestezina dugu testu juridikoen euskal bertsioen akatsak zuzentzea eta terminologia *bategitea*. Ez bakarrik testuen kalitatea atontzearen (burujabetasunaren hasierako testuei ongi letorkekie zuzenketa), baita ere urteotan konturatu edo ez euskara eta administrazio hizkerara zerotik hasita hainbat aurreratu delako/dugulako guztion artean. Testuak euskaraz izateari ez baderitzogu aski, erabili nahi baditugu ere (zuzenbide irakaskuntzan, administrazioaren barne eta administrazioarekiko harremanetan, auzitegietan), testu apainak behar-beharrezkoak ditugu administrazioan dihardutenek eta legelari guztiok. Azken batean, terminologia bat egin eta oro har testu juridikoen euskal bertsioen akats eta urritasunak zuzendu *beharra* daukate herri-botereek, Konstituziozko segurtasun juridikoaren printzipioaren arabera (EK 9.3 art.), printzipio honek zuzenbidea jakiten ahal izatea eskatzen baitu. Beraz, zuzenbideak ez du soilik eskura egon behar (hots, argitaratua); zuzenbidearen hizkerak argia, ulerkorra, kontraesanik gabekoa izan behar du ere. Eta hau, euskaldunekiko bederen, ez da betetzen.

Terminologiaren baterakuntza-lana ez da Euskal Herriko erakunde erkideen lege-testuetara mugatu behar, Jaurlaritzari hizkuntza *idatziaren* batasunaren ardurara baitagokio; foru erakundeek emandako arauak ere kontuan hartu behar izango lirateke. Eta Nafarroako erakundeekin koordinazioa bilatu behar izango litzateke. Testuen baterakuntza funtsezko arauetara mugatuta egon liteke, gero oinarritzako bilduma hori erreferentzia bihurtzeko asmoz. Egungo teknologiak ahalbideratzen du. Beti ere, azkenengoan dagokien lege-egintza jardunbideari atxiki behar izango litzaiokete, lege-testuen euskal bertsio bateginek lege-indarra izan dezaten, gure

30. MONREAL ZIAk azpimarratu duenez (aip. lib., 143 or.).

31. M.K. GARMENDIA LASA, “Euskararen normalkuntza eta plangintzarako organuak”, E. COBREROS (bateragilea), Euskararen lege-araubideari buruzko jardunaldiak, HAEE-IVAP, Oñati, 1990, 182 or.

32. GARMENDIA LASA, aip. lana, 182 or.

33. Gaztelerazko testua ekarri dugu, euskarazkoak erdarazko ñabardurak galtzen edo ditu-eta.



legeen *lege-indarrean* ere euskaraz sinesten ahal dezagun. Terminologia bat egiteko eta testu juridikoen euskal bertsio berriak egiteko, legegintzako tresna arinei ere ekin dakieke: esate baterako, Legebiltzarrak Jaurlaritzari legegintzarako ahalmena eskuordetzan eman diezaioke, eta Jaurlaritzak dekretu legegileen bidez onartuko lituzke testu juridikoen euskal bertsio berriak.

3. Ondorio gisa

Euskaltzaindiaren 1996ko erabaki baten arabera, Nafarroako komunitate politikoaren eta Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak osatzen duten komunitate politikoaren euskal izenak "*Nafarroako Foru Erkidegoa*" eta "*Euskal Autonomia Erkidegoa*" dira. Dena dela, Euskaltzaindiak ezin izan du Euskal Herrirako Autonomia Estatutua ukitzen ahal, ezta ukitu nahi ere. Espainiako Konstituzioaren 147.2 artikulua arabera, autonomia erkidegoaren izenez tapena Autonomia Estatutuz erabaki behar da. Euskal Herrirako Autonomia Estatutuak autonomia erkidegoaren izenaren kontua argi eta garbi xedatzen du: erdaraz hala "*Euskadi*" nola "*País Vasco*". Lege organiko horren euskal bertsioak horien baliokide gisa "*Euskadi*" eta "*Euskal Herria*" ematen ditu. Erdarazkoaren itzulpena den euskal testua ofizialtzat jo behar da "zuzenbidezko eragin eta balio osoaz". Hori Konstituzioaren 3.2 artikulutik, Autonomia Estatutuaren 6. artikulutik eta Euskararen Erabilpena Arautzeko legearen 8. artikulutik eratoritzen da. Azken xedapen honek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan dauden herri-botereen araugintza eta erabakiak bi hizkuntzetan idatzita egon beharra ezartzen du, "*zabalkunde ofiziala egiteko*".

Honek arazo larri eta askotan ahaztu batera garamatza: testu juridikoen euskal bertsioetako terminoen balio juridikoa. Arazoa ez da euskal bertsioetako terminoen balio juridikoa (hau testuen ofizialtasunean oinarritzen da), balio juridikoaren ondorioak benetan aintzakotzat hartzen diren baizik. Testu juridikoen euskal bertsioak itzulpenak izaten dira. Herri-botereek (legebiltzarrak nahiz administrazioak) ez dituzte onartzen edo sendesten, itzultzaile jakinen lana izaten baita lege-indarreko testuak egitea. Gauzatzen dituzten itzulpenei lege-indarra datorkien heinean, herriaren ordezkariak bezala, orobat itzultzaile jakin horiek *legegintzan* parte hartzen dute. Haien erabilitako terminoak argitaratuz gero ofizial bihurtzen diren neurrian, itzultzaileek mintzaira eratzen eta bideratzen dute. Beraz, legegileen eragina bezala, orobat itzultzaileena ohiko hizkuntza akademiaren bano indartsuagoa izaten da. Testu juridikoen bertsio horiek eta erabilitako terminoak ofizialtzat jo behar dira: abiapuntuaren ildotik, esate baterako, euskal bertsioan "autonomia elkarte" terminoa erabiltzen

bada, termino horrek "zuzenbidezko eragin eta balio osoa" izango du. Beraz, behin argitaratu ondoren, hala herri-botereak eta herritarrak nola itzultzaileak testu horietara lotuta daude. Haatik, euskal bertsioek erakunde bereko itzulpenak izan arren eduki berbera adierazteko termino berriak erabiltzen dituzte lege lege (ad., "autonomia elkarte", "autonomia elkarte", "autonomia-elkarte", "autonomia komunitatea", "autonomia erkidegoa"); arazoa are eta larriagoa da adigai konplikatuenetan. Egoera honek ez du zuzenbidearen erabilera euskaraz errazten. Hau ez da itzultzaileen lana mesprezatzea, itzulpengintzaren garrantzia azpimarratzea baizik. Bada testu juridikoen euskal bertsioak harmonizatzeko eta terminologia bat egiteko garaia. Legelariak testu juridikoak oinarri eta zutabe dituzte beren lanean. Legelari euskaldunok ezer gutxi has dezakegu euskal testuen kalitatea ez bada gure behar eta aspirazioetara egokitzen. Ezinbesteko eginkizuna da euskal bertsioen akatsak eta urritasunak zuzentzea eta terminologia bat egitea. Baliabideak badira: egungo teknologiak terminologia juridikoa bat egitea eta euskal bertsio harmonizatuak egitea ahalbideratzen ditu. Euskararen Erabilpena Arautzeko legeak Eusko Jaurlaritzari hizkera ofizialaren batasunaz eta arautzeaz arduratzeko agindua ematen dio (30. art.). Segurtasun juridikoaren printzipioak herri-botereei zuzenbidearen hizkera argitu, garbitu eta atondu beharra ezartzen die ere (EK 9.3 art.). Horrek ez du Euskaltzaindiaren betekizuna ordeztzen, *corpus* plangintzaren gidaritzaren nagusia baita bere eginkizuna. Baina Jaurlaritzak *status* plangintzaren gidaritzaren nagusiaren arduraz gain, lege- eta administrazio-hizkera eratzeko eta bat egiteko ardura eta erantzukizun zuzena du. Terminologia bat egitearen helburua, jakina, testu kontsolidatuak egitea izango litzateke, eta testu kontsolidatu horiei lege-indarra eman beharko litzateke legez edo, legegintzarako eskuordetza arabera, dekretu legegilez.